

Maria Iturbe
Gernika-Lumo, Bizkaia

Aurkibidea

Biografia

1985eko uztailan egin zitzaion elkarrizketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako.

Zintak

GER-038

- **Proiektua:** Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erkiaga, Josu
- **Data:** 1985-07-01
- **Iraupena:** 2 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** Aita Villasante Euskaltegia, Gernika-Lumoko

Pasarteak

1. Bonbardaketaren eguneko oroitzapenak

- **Erref:** GER-038/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Bonbardaketa eguna zelan bizi zuen kontatzen du. Su-bonbaz eta metrailadorez eraso zioten. Babeslekutik irten ostean, dena erreta eta hildakoen gorpu asko kalean zehar barreiatuta aurkitu zituzten. Etxe barik gelditu zirenez, baserri batera joan ziren.</p>

Transkripzioa

Astelena, da lagun asko egon san Gerniken. Ferijja egune ixesan da arratsaldeko bostetan asi sien da illuntzeko sortzi txerdijjek arte egon sien botaten... bonbak eta... --selan da ori- susko bonbak eta baitte metralladorie, metralladorie ba bai da gero, ba, andik urtenda dana sue egon san deskenduen nora jua bes, esebes, dana ille kalien, da gero baserri batera jun giñen da antxe egon giñen aldi baten. Gero ostabe etorri giñen barrure baiña emen eseuen arrijje ta sue ta negarra baino. Gero egon giñen, ba, korupien da korupien gengosala jausi san bonba bat an atzeko aldien, kantoien da arek ateko, arek atzeko ate lodi bijjek jun sien bera, aixie´putz einje les, da an egon giñen, ba, arnasarik artu esiñik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com